

EKINN ALOJAMENDUA ALOJAMENDURAKO LAGUNTZETAN PARTE HARTZEKO OINARRIAK, DONOSTIA SUSTAPENAREN ENPRESA BERRITZAILEEN EKIMEN BERRIEN SORRERA, HAZKUNTZA ETA SENDOTZEA BULTZATZEKO PROGRAMEN ESPARRUAN

ATARIKOA

Donostia Sustapena Sozietateak 2023an hirian berrikuntza arloko erreferente bilakatzera eta Donostiako Berrikuntza Agentziaren eginkizuna betetzera bideratutako estrategia eta kudeaketa-eredu berriranzko trantsizio baten aldeko apustua sendotu zuen.

Horrek berekin dakar pertsonen, enpresen eta proiektuen bidelagun izatea, pertsonalizazioa, kalitatea eta begirada estrategikoa ardatz hartuta, eta hiriko berrikuntza arloko ekosistema osatzen duten eragile publiko zein pribatu ezberdinekin lankidetzaz aritzearen aldeko apustu argi batekin. Hiriko enpresa-proiektu berritzaileen berrikuntza eta hazkuntza bultzatzea Donostia Sustapenaren garapen arloko lehentasunetako bat da, hiriaren garapenerako oinarri gisa.

Gaur egun, hiriak 15.600 enpresako enpresa-parkea du. Horrek 1.000 biztanleko 80 enpresako enpresa-dentsitatea suposatzen du. Espainian hirugarren hiri modura kokatzen da, Bartzelona eta Madrilen atzetik, eta hiriburu adierazgarri batzuen aurretik, adibidez, Valentzia, Malaga edo Bilbo.

Donostiako Jarduera Ekintzailearen Tasa (JEA) igotzen ari den testuinguru batean, hirian, era berean, I+D arloa osorik begira dauden enpresen kopuru maximoa erdietsi da. Hala, Donostian, 2023an guztira 124 enpresa zituen. Zenbaki horrek 2,5 aldiz biderkatzen du esparru horretan duela hamar urte zegoen enpresa-parkea. Haatik, JET tasa (Jarduera Ekintzailearen Tasa), pandemia aurretiko mailatan kokatzen bada ere, % 7ra iritsi baita Espainiako batez bestekoaren (% 6) gainetik kokatuz, oraindik esparru honetan aurreratuago dauden ekosistemetatik eta EB-ko batez bestekotik ere (% 8,9) urrun samar dago.

Modu paraleloan, hiriko enpresa-ehunean enpresa txikia da oraindik nagusi; izan ere, enpresa-ehunaren % 72,5 bat edo bi langileko enpresak dira, eta % 91,7koa da 1-9 langile bitarteko kopurua duten enpresen portzentajea.

Besteak beste, erronka horiei erantzuteko, 2023an Donostia Sustapenak berrikuntzaren eta ekintzailetzaren aldeko bere apustu estrategikoa indartu du, 5 milioi euroko zuzkidura batekin. Horrela, 750 pertsonen (% 52 emakumeak eta % 46 35 urtetik beherakoak) ekintzaileak laguntzeko zerbitzuetan parte hartu dute, Ekialdeko distrituan bereziki (% 15). Babestutako 295 proiektu ekintzaile berrien artean, % 44 oso berritzaileak dira, Donostia Sustapenak ezagutzen eta Biozientzien arloan intentsiboak diren zerbitzuak dituzten sektoreei begira duen estrategia islatuz.

Zehazki, EKINN+ programak 126 proiektu babestu ditu 2015az geroztik, % 98,8ko iraupen-tasa batekin, eta 5-7 urteko epean sortutako enplegua modu nabarian hazi da.

Donostia Sustapenak enpresa-ehun berritzailea bultzatu eta indartzera zein enpresa-

proiektu berritzaile berriak garatzera bideratutako zenbait programa eta neurri artikulatzen ditu, I+G arloaren bere ekosistemarekin hiriaren hazkuntza lehiakorra bultzatzeko xedez.

Ekintzailletza berritzaileko ekimen gehiago erakarri eta atxikitzeko helburuarekin, eta talentu berritzailea baitaratzeko planaren esparruan, sustatzen dira **alojamendurako Ekinn laguntza** hauek, ekintzailletza berritzaileko proiektuak Donostia garapenerako, hazkuntzarako, enpleguaren sorrerarako eta aberastasunerako lekutzat hauta dezatela ahalbidetu eta bultzatzeko.

Izaera berritzailea duten laguntza horiek, era berean, nagusiki Ekinn eraikina gauza dadin planteatzen dira, Talent House eraikinean ere hartu badaitezke ere, eta aldi baterakoak izango dira eta Donostia Sustapenak ekintzailletza berritzaileko proiektuak bultzatzeko bere estrategiaren esparruan sustatzen dituen programei begirakoak.

XEDAPENAK

1. ARTIKULUA. XEDEA

EKINN alojamendurako laguntzak, Donostian alojamendua eskainiz, Donostia Sustapenaren programa ezberdinetan parte hartzen duten pertsonen laguntzera daude bideratuta, izaera berritzailea duen talentu ekintzailea erakarri eta atxikitzen laguntzeko, Donostiako hirian start-upak sortu, hazi eta sendotzea bultzatze aldera.

Donostia Sustapenaren ekintzailatza berritzailearen programetan parte hartzen duten pertsona ekintzaileen alojamendura bideratutako laguntza da.

2. ARTIKULUA. BALIABIDE EKONOMIKOAK

Donostia Sustapenak HAMASEI MILA (16.000) euro bideratuko ditu Alojamenburako Ekinn Programara. Zenbateko hori aldatu egin daiteke Donostia Sustapenak horrela erabakiz gero.

3. ARTIKULUA. PERTSONA ONURADUNAK

Laguntzaren pertsona onuradun modura hartuko da laguntza ematea ekarri zuen jardueraren behar duen hura, edo laguntza ematea legitimatzen duen egoeran dagoen pertsona, betiere, Oinarri hauetan jasotzen diren betekizunak betetzen baditu eta, espezifikoki, laguntza mota bakoitzarekin lotutakoak.

Pertsona onuradun izan ahalko dira pertsona fisiko edo juridikoak, publiko zein pribatuak, nazional edota atzerrikoak, eta baita aurrekoen izaerarik gabeko elkarteak ere, Oinarri hauetan ezarritako betekizunak jasotzen dituen ordenamendu juridikoaren arabera modu baliozkoan eratu baldin badira. Kanpoan geratzen dira ondarezko sozietateak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarilaren 17ko 2/2014 Foru Arauko 14. artikuluan zehazten direnak.

Oinarri hauetan dagozkion laguntzak eskatzeko beharrezkoak diren betekizunak eta horiek egiaztatzeko moduak zehaztuko dira. Edozein kasutan, Diru-laguntzen Lege Orokorreko (aurrerantzean, DLLO) 13. artikuluan aurreikusitakoa bete beharko da, ondorio hauetarako aplikagarritzat jotzen dena berariaz.

Ezingo zaie laguntza pertsona fisiko edo juridikoei eman:

- Indarreko xedapenek agindutako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak betetzen ez badituzte.
- Ebazpen irmoz dirulaguntzak edota laguntza publikoak jasotzeko aukeraren galerarekin zigortuak badaude, edo horretarako ezgaitzen dien legezko debekuren bat badute, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako

indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko Legegintzako 1/2023 Dekretuko 23.2 artikuluan xedatzen denaren arabera sexu-arrazoien ondoriozko diskriminazioagatik zigortuak badaude barne; era berean, ezingo dira horien onuradun izan pertsona fisikoak edo onuradunak sexuagatik diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigor-zehapena jaso badu kasuan kasuko zehapenean ezarritako aldian. Estatuko araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean edukitzeko betebeharrarekin, halakorik ez duten enpresek ere ezingo dute laguntzarik edo dirulaguntzarik jaso, ezta Estatuak emakumeen eta gizonen berdintasun arloan legeriaz ezarrita dituen baldintzetan sexu-jazarpenera, sexu-arrazoien ondoriozko jazarpenera eta sexu-indarkeriak prebenitu eta hari aurre egiteko neurriak ezarri izana egiaztatzen ez duten 50 langiletik gorako enpresek ere.

- Donostiako Udalarekin edota Donostiako Sustapenarekin zorrak baldin badituzte.
- Aldez aurretik emandako laguntzak, osorik edo zati batean, itzultzeke badituzte, itzultzeko zenbatekoa ordaindu izana egiaztatzen ez den bitartean.

Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 28.2. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, interesdunek eskubidea dute jadanik Administrazio jardulearen eskuetan dauden dokumentuak edo beste edozein administrazio egindakoak ez helarazteko. Gainera, administrazio jarduleak aukera izango du dokumentu horiek behatu edo biltzeko, interesdunak horrekiko aurkakotasuna azaldu ezean. Kasu horretan, ziurtagiriak helarazi beharko lituzke.

Donostia Sustapenak, Donostiako Udalaren jabetzako elkarreragingarritasun-aplikazioaren bidez, zuzenean kontsultatuko die eskumeneko herri-administrazioei jarraian adierazten den informazio hau, prozedura hau ebatzi eta ordaintzeari begira:

- Udalarekin eta Donostia Sustapenarekin ordainketa egunean izatearen ziurtagiriak.
- Foru Ogasunarekin ordainketa egunean izatearen ziurtagiriak.
- Pertsona onuradunaren eta pertsona sustatzaileen Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren (JEZ) historia
- Gizarte Segurantzarekin ordainketa egunean izatearen ziurtagiria.

Diru-laguntza eta ordainketa ezberdinak eskatzen dituzten unean Udal Diru-bilketa, Foru Ogasun edota Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean ez dituzten pertsona onuradunek HAMAR (10) egun balioduneko epean, jakinarazpenetik zenbatzen hasita, betebeharrak hori egunean izatea egiaztatu beharko dute.

4. ARTIKULUA. PERTSONA ONURADUNEN DEIALDI HONETAN PARTE HARTZEKO BETE BEHARRAK DITUZTEN BETEKIZUNAK

Honako betekizunak bete beharko dituzte pertsonak:

- a) Donostia Sustapenak ekintzailatza berritzaileko proiektuak erakarri eta atxikitzeko abiatutako programetako onuradun izatea, betiere, programa horietan hala zehazten bada, besteak beste:

- Explora SS programa
- Ekinn Egoitzak Programa
- Ekinn Campus programa

Gainera, programa horretan parte hartzearen ebazpen positiboa jasota izan beharko dute.

Donostia Sustapenak aukera izango du laguntza horiek barneratzeko deialdi honen ondoren abiatzen dituen beste programa batzuetan. Kasu horretan, programa horietan alojamendurako Ekinn laguntza hauetan sartu izana adierazi beharko da.

- b) Donostia Sustapenarekin alokairu-kontratu bat sinatzea
- c) Onuradun izan den eta laguntza hauek jasotzeko aukera eman dien programako saio guztietan modu aktiboan parte hartu eta bertaratzea
- d) Banku-helbideratze bidez garbiketari dagozkion gastuak edo, beharrezkoa balitz, bestelako aparteko gastuak ordaintzea, behin egonaldia amaituta.
- e) Parte hartzen den eta laguntza hauen deialdian sartzeko aukera ematen duen programako betebeharrak guztiak betetzea.

Edozein betebeharrak urratuz gero, Donostia Sustapenak eskumena izango du laguntza hauek ezeztatzeko berehala, ez-betetze horretatik erator litezkeen kalte-ordainak eskatzeaz gain.

5. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNTZEKO KONTZEPTUAK ETA LAGUNTZEN ZENBATEKOA

Laguntza Ekinn edo Talent House eraikinetan, estudio estandar batean, doako alojamendu-zerbitzua da, astean 210 euroan balioetsia, BEZ barne.

Sustapenak zehaztuko du alojamenduaren lekua, aukera hauekin: San Bartolome 16 gainean lekutzen den Ekinn eraikina (20.009 posta-kutxa) edo Baenako Dukearen Pasealekuko 42 zenbakian (20.009 posta-kutxa) lekutzen den Talent House eraikina.

Gehienezko laguntza eta egonaldia kasu bakoitzaren arabera erabakiko da, eta dagokion programaren iraupenarekin bat etorriko da.

Edozein kasutan, Sustapenak proiektu jakin batzuetarako, adierazitako gehienezko hori aldatu ahal izango du modu ezohikoan, beharrezkotzat jotzen badu.

Donostia Sustapenak programari dagozkion baldintzak aldatzeko eskubidea gordetzen du, edozein arrazoi dela medio, egokitzen jotzen badu.

7. ARTIKULUA. BESTE LAGUNTZA BATZUEKIN BATERA EMATEA.

Laguntza hauen emakida da bateragarria izango da xede berdinerako emandako beste edozeinekin, horiek edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuetatik,

nazionaletatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko organismoetatik iristen direla ere; betiere, baldintza hauek betetzen badituzte:

Oinarri hauetan ezartzen diren laguntzek “minimis” izeneko laguntzetan Europar Batasunaren Funtzionamendurako Tratatuak 107. eta 108. artikulua aplikatzeari buruzko 2023ko abenduaren 15ko EBAO aldizkarian argitaratutako 2023ko abenduaren 13ko Batzordearen 2023/2832 zenbakidun Erregelamenduan (EB), ezarritako “minimis” arauak beteko dituzte.

Oinarri hauetan adierazitakoarekin bat etorritik jasotako laguntzaren zenbatekoa ezingo da, inolaz ere, diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen duen zenbatekoa izan, bakarka edo beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batekin batera.

8. ARTIKULUA. ESKAERAK ETA AURKEZTEKO DOKUMENTAZIOA.

Laguntza honen deialdia dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuko da eta, gerora, haren laburpen bat argitaratuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Laguntza-eskaerak laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera aurkeztu ahal izango dira, eta **deialdia amaitu arte, 2025eko Otsailaren 28an**.

Behin eskaerak egiteko epea amaituta, soberakinik baldin badago edo zuzkidura ekonomikoa areagotzen bada, eta Donostia Sustapenak egokitzen jotzen baldin badu, eskaerak egiteko epea luza dezake oinarri hauek aldatuta (kasu horretan dagozkion bideetan argitaratuko da).

Eskaerak modu telematikoan aurkeztu beharko dira Donostia Sustapenaren webgunearen bidez (www.fomentosansebastian.eus).

Eranskinak osorik bete beharko dira eta behar bezala sinatuta egon beharko dira.

Edozein informazio edo kontsultarako 943 482800 telefono-zenbakian edo fomentoss@donostia.eus helbide elektronikoan artatuko da, azken horretan zera adierazi beharko da gai modura: “Alojamendurako Ekin laguntzak”

Eskaera egiteko dagokion inprimakiarekin batera, eskatzen den administrazio dokumentazio guztia atxikiko da, eta baita dokumentazio tekniko eta ekonomikoa ere.

Administrazio dokumentazioa:

- **Eskaeraren Eranskina**
- Pertsona fisikoaren kasuan, **eskatzailearen NAN** agiriaren kopia.
- Pertsona juridikoaren kasuan, **eskatzailearen IFK zenbakiaren** kopia eta, hala badagokio, pertsona ahalordearen NAN agiria.

Onuradun den pertsonak egindako erantzukizunpeko adierazpen guztien nahiz aurkeztutako gainerako dokumentazioaren egiazkotasunaren gaineko erantzukizun osoa hartzen du bere gain.

Pertsona interesatuek Donostia Sustapenaren programaren batean parte hartzeko dokumentu horietakoren bat aurkeztu baldin badute aldez aurretik, ez da beharrezkoa izango atal honetan eskatzen den dokumentazioa berriro aurkeztea, baldin eta dokumentazio horrek indarrean jarraitzen badu eta haren datuak aldatu ez badira.

Diru-laguntza eta ordainketa ezberdinak eskatzen dituzten unean Udal Diru-bilketa, Foru Ogasun edota Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzeke dituzten erakundeek hori betetzen dutela egiaztatu beharko dute. Horretarako, Donostia Sustapenak zuzenketa-jakinarazpena bidaliko du.

9. ARTIKULUA ESKATZAILEEN AKATSAK KONPONTZEA.

Donostia Sustapenak dokumentazio osoa berrikusi ostean hura osagabe dagoela edo dokumenturen bat falta dela ikusten bada, pertsona eskatzaileari eskaera egingo zaio falta den dokumentazioa gainera dezan edo beharrezkoak diren dokumentuak gainera ditzan **HAMAR (10) egun balioduneko** epean, hala egin ezean, bestelako izapiderik gabe, eskaera horretatik baztertua izango dela eta horren ondoriozko ebazpena emango dela adierazita. Administrazio dokumentazioa nahiz laguntza honen dokumentazio espezifiko konpontzeko aukera izango da. Donostiako Sustapenak proiektuko memoriari buruzko argibideak eskatu ahalko ditu, komenigarritzat jotzen badu.

Akatsen zuzenketa horiek pertsona onuradunak harremanetarako posta elektronikoko modura ematen duen helbide elektronikoz jakinaraziko dira. (JAKINARAZPENETARAKO HELBIDE ELEKTRONIKOA). Edozein kasutan, jakinarazpen horiek eskuragarri egongo dira web-aplikazioan, pertsona edo erakunde eskatzaile bakoitzaren espedientearen.

Akatsa zuzentzeko eskatutako dokumentazioa hasierako eskaera egiteko baliatutako bide bera erabiliz aurkeztuko da. Posta elektronikoz aurkeztutako justifikazioak ez dira onartuko.

Laguntzak Donostia Sustapenak emandako berariazko ebazpen bidez eman edo ukatuko dira eta posta elektronikoz jakinaraziko da. Jakinarazpenak, era berean, eskuragarri izango dira web-aplikazioan, espedientearen barruan.

10. ARTIKULUA. LAGUNTZAREN IZAPIDEA ETA EBAZPENA

Eskaerak sarrera-erregistroko hurrenkeraren arabera ebaluatu eta ebatziko dira, baliabide ekonomikoak agortu arte.

Eskaera bat onar dadin, pertsona eskatzaileak onuradun izan beharko du eta, horrenbestez, Alojamenturako Ekin laguntza hauetan sartzeko aukera ematen duten programetako batean aldeko ebazpena jasota izan behar du.

Eskatutako laguntzaren ebazpena igortzeko epea hilabete batekoa (1) izango da eskaera formalizatzen den egunetik zenbatzen hasita. Epe horretan ez dira kontuan izango administrazio dokumentazioko akatsak konpontzeko epeak. Laguntza ematearen ebazpena hitzartutako epean ez igortzeak ez du suposatuko haren emakida.

Laguntza Donostia Sustapenak emandako berariazko ebazpen bidez eman edo ukatuko da.

Ebazpenak posta elektronikoz jakinaraziko zaizkie pertsona eskatzaileei “Jakinarazpenetarako Helbide Elektroniko” modura Eskaeraren Eranskinean helarazten den helbide elektronikora; web-aplikazioan ere eskuragarri izango dira, espedientearen barruan.

Igorritako ebazpenarekin desadostasuna izanez gero, alegazioak aurkeztu ahal izango dira, gehienez, hilabeteko epean, ebazpen hori ematen den egunetik zenbatzen hasita. Horretarako, Donostia Sustapenarekin jarri beharko da harremanetan eta hark emango du izapidetzea egiteko jarraitu beharreko prozeduren berri. Donostia Sustapenak erabakitzen duenari jarraituko zaio eta, hala badagokio, bi alderdiak Donostiako Epaitegi eta Auzitegien jurisdikzioaren mende jarriko dira.

11. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN GASTUAK

Diruz lagun daitezkeen gastuak izango dira Donostia Sustapenaren Ekin edo Talent House eraikinetako alojamenduari dagozkion alokairu-gastuak.

Diruz lagun daitezkeen gastuak gauzatzeko epea laguntza honen ebazpenean zehazten dena izango da, talentu ekintzailea erakarri eta atxikitzeko onartutako programarekin bat etorritz.

Alojamendua justifikatzeko fakturak Donostia Sustapenak igorriak izango dira, eta onartutako alojamenduaren epealdiarekin bat etorriko dira.

Laguntza Ekin edo Talent House eraikinetan alojamenduak eragingo duen gastuaren baliokide izango denez, faktura guztiak automatikoki ordainduta geratuko dira laguntza hauen bidez.

Honako hauek ez dira diruz laguntzekoak izango, eta fakturatu eta laguntza hauen onuraduna den pertsonak ordaintzekoak izango dira:

1. Erabilitako apartamentuaren azken garbiketari dagozkion gastuak.
2. Egonaldian zehar sor daitezkeen aparteko beste zenbait gastu.

12. ARTIKULUA. PERTSONA ONURADUNEN BETEBEHARRAK.

Laguntza horien onuradun diren pertsonak Diru-laguntzen Lege Orokorreko 14. artikuluan jasotzen diren betebeharrak hartuko dituzte beregain, ondorio hauetarako aplikagarritzat jotzen dena berariaz, betebeharrak aipatzen (zerrenda modura eta ez mugatzaile modura) direlarik:

- Ekarpena diruz lagundutako jarduerak burutzera bideratzea.
 - Donostia Sustapenak berariazko baimena eman ezean, aurkeztutako proiektuaren baldintzak errespetatu eta betetzea.
 - Diruz lagun daitezkeen gastuak justifikatzeko eskatzen den dokumentazioa ezarritako moduan eta denboran aurkeztea.
 - Jasotako laguntzak aplikatzea justifikatzeko dokumentuak gordetzea, egiaztatu edota ikuskatu daitezkeen bitartean eta, edozein kasutan, aplikagarri den araudian ezartzen den epean zehar.
 - Proiektuak dituen jardueren gastu edo diru-sarrerak osorik zenbatzea.
 - Kontabilitateko liburuak behar bezala osatzea, horretarako betebeharra dagoenean.
 - Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.
 - Laguntzak emateko kontuan izan den edozein inguruabar, subjektibo nahiz objektibo, aldatu bada, Donostia Sustapenari horren berri ematea.
 - Emandako laguntzekiko dituen zereginak betetzeko Donostia Sustapenak eskatzen duen informazio oro helaraztea.
 - Donostia Sustapenari helburu berarekin jasotako bestelako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuen berri ematea.
 - Donostia Sustapena aipatzea laguntza hauen xede diren proiektuak sustatu eta hedatzeko jarduketetan, bere irudi instituzionala zein dagokion irudi-testua gaineratuz komunikaziorako erabiltzen diren euskarrietan (web-orrialdea, kartelak, posta elektronikoaren bidalketa, etab.)
 - Donostia Sustapenak laguntza hauen xede diren proiektuen jarraipena eta ebaluazioa egiteko deitzen dituen bilkura guztietara bertaratzea.
 - Jasotako laguntzarekin lotuta Donostia Sustapenak dei ditzakeen jardunaldietan parte hartzea (proiektuen aurkezpena, jarduerak, emaitzen jarraipena, etab.).
 - Donostia Sustapenari laguntzen xede den proiektuan aurkeztutako baldintzak aldatzen dituen edozein inguruabarren berri ematea.
 - Hala badagokio, Donostia Sustapenarekin kolaboratzea finantzaren kontrol eta egiaztapenerako burutu ditzakeen esku-hartzeetan, haren eskura eskatzen zaion informazio eta dokumentazio guztia ipiniz.
 - Laguntzaren xede den jarduera egiteko beharrezkoak liratekeen lizentzia edo baimen guztiak izatea.
 - Oinarri hauetako 3. eta 4. artikuluetan adierazitako betekizunak betetzea.
 - Donostia Sustapena baimena ematea, I+G+b enpresa eta agenteen direktorio digitaletan, harremanetarako datuak, jarduerari dagozkion datuak, izen komertziala, logotipoa, marka eta pertsona onuradunak trafiko ekonomikoan erabilitako beste edozein ikur argitara dezan. Horretarako, pertsona onuradunak Donostia Sustapenari elementu horien gainean ustiapenerako lizentzia bat emango dio, adierazitako helburuetara mugatua, eta hark modu baketsuak erabiliko duela bermatuko da.
 - EAEko hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea (euskarari lehentasuna emanez) komunikaziorako euskarrietan (webguneak, gizarte-sareak, posta elektronikoaren bidalketak, megafonia, etab.) sustapen eta hedapenerako materialen edizioan, antolatutako jardunaldi eta ekitaldien hizkuntza erabiltzean, etab.
- Pertsona onuradunek aukera izango dute Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuari aholkularitza eskatzeko testuen itzulpenak egin eta horiek zuzentzeko (gehienez hilean 1.000 karaktereko itzulpenak, eta zuzenketen kasuan gehienez 9.000 karaktere), betiere, zerbitzuaren betekizun eta ezaugarriak betetzen badira.

<http://www.donostiaeuskaraz.eus/euskaraz/dirulaguntzak/lang/es>

13. ARTIKULUA. ITZULKETA

Pertsona fisiko edo juridiko onuradunak jaso zukeen laguntza ekonomikoa itzuli egin beharko du, diruaren interes legala gaineratuta (emandako kopuruen ordainketa egin den unetik aurrera), egoera hauetako edozeinetan:

- Oinarri hauetan aurreikusten diren betebeharrak modu larri edota errepikatuan urratzea. Ez-betetze larri edota errepikatu modura ulertuko da oinarri hauetako betebeharrak bat edo zenbait behin baino gehiagoan ez betetzea; helarazitako edozein datu, ziurtagiri, txosten edo dokumentazioaren faltsutasun edo faltsifikazioa; edota oinarri hauen esparruan jasotako laguntza, osorik edo zati batean, aurreikusitakoaz aparteko helburu batera bideratzea.

- Laguntzaren jomuga oinarri hauetan aurreikusitako moduan justifikatzeko betebeharra urratzea, edota behar bezala ez justifikatzea.

- Onuradunaren jardueraren gainean egin litezkeen egiaztapen eta ikuskapen esku-hartzeen aurrean uzkur, aitzakiaz, buxaduraz edo ezkor agertzea, eta baita kontularitzako, erregistrozko edo dokumentuak gordetzeko betebeharrak ez betetzea horren ondorioz emandako ekarpenei emandako erabilera, finantzatutako jardueren errealitatea eta erregularatasuna, edo helburu berdinekin edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribaturen, nazionalen, Europar Batasuneko edota nazioarteko erakundeen aldetik jaso ahal izan diren diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak egiaztatzea ezinezkoa denean.

- Jarduerak neurritz gaineko finantzazioa jaso z gero, neurritz gain finantzatu den zenbatekoan.

- Kontratua etetea objektibotzat jotzen ez diren edo enplegatzaileari ez dagozkion arazoien ondorioz.

Aurrekoa kontuan izanik, laguntza hauen onuradun izateko eskatzen diren betekizunak uneoro bete eta mantendu beharko dira. Bestela, Donostia Sustapenak aukera izango horien itzulketa eskatzeko aurreko lerroaldeetan zehaztutako baldintzetan. Halaber, ez-betetzearen kasu larriagoetarako, esate baterako, datuak faltsutzea edo jasotako laguntza, osorik edo zati batean, desbideratzea, Donostia Sustapena SA sozietateak eskumena izango du emandako laguntza bertan behera uzteko eta, hala badagokio, jasotako zenbateko guztien itzulketa erabakitzeke, eta gainera, jasotako zenbatekoaren halako bost ordaintzeko eskatu ahal izango du.

Laguntza itzuli egin beharko da, Donostia Sustapena SA sozietatearen aldetik eta onuradunari igorrita, jarraian deskribatzen diren baldintzekin, Oinarri hauetan ezarritako arazoietakoren bat gertatu dela frogatuz gero.

Itzulketa laurogeita hamar egun naturalen barruan egin beharko da, Donostia Sustapena SA sozietateak onuradunari artikulua honetan itzulketa egiteko aurreikusten diren

arrazoietakoren bat gertatu dela adierazteko jakinarazpena burofax bidez igortzen dionetik.

Halaber, eta aurreko lerroaldeetan hitzartutakoaz gain, Donostia Sustapena SA sozietateak eskubidea gordetzen du oinarri hauetan ezarritako betebeharren bat zabarkeriaz urratu duten edo fede onaren funtsezko arauak urratzea ekarri duen jokabidea izan zuten pertsona fisiko edo juridikoei Donostia Sustapena SA sozietateak eskaintako beste edozein laguntza edo onuretan parte hartzea ekiditeko BI (2) URTEKO epez.

14. ARTIKULUA. DATU PERTSONALEN BABESA

Datuak babesteko indarreko araudian ezartzen denaren arabera, helarazten dizkiguzun datu pertsonalak Donostiako Udalak tratatuko dituela jakinarazten da, Tratamenduaren arduradun modura jardungo duena, Donostia Sustapena S.A. sozietateak kudeatutako informazioa izanik tratamenduaren arduradun izaeran.

Tratamenduaren xedea laguntza-eskaera izapidetu eta kudeatzea da.

tratamenduaren zilegitasuna DBEO erregelamenduko 6.1.e) artikuluan oinarritzen da: tratamendua ezinbestekoa da interes publikoan edo tratamenduaren arduradunari emandako ahal publikoak gauzatzean burututako misioa betetze aldera: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriei buruzkoa; 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa; eta 38/2003 Lege orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

Oinarri hauetan edo eskaera egiteko dagozkion inprimakietan hala adierazten denean, datu pertsonalei buruzko informazioa entregatzea derrigorrezkoa izango da eta horiek ez emateak edo datu okerrak emateak eskaera kudeatu ahal izatea ekidingo du.

Oinarri hauetan araututako laguntzen onuradun diren pertsona eskatzaileek emandako datu pertsonalak, hala badagokio, laguntza horien finantzaketan parte hartzen duten edota horien kudeaketan Donostia Sustapenarekin kolaboratzen duten erakunde nazionalak edo nazioz gaindiko erakundeei laga ahalko zaizkie, hori beharrezkoa denean eta soilik emakida kudeatzeko xedez.

Halaber, jakinarazten da laguntzak emateak berekin ekarriko duela pertsona onuradunaren identifikazioko datuak komunikatu edo lagatzea, horiek, emandako laguntzaren zenbatekoarekin batera, Donostia Sustapenaren web-orrialdean nahiz Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuz.

Ez da aurreikusten datuak hirugarrenei modu gehigarrian komunikatzea, legezko betebeharra salbuetsita, eta datuen nazioarteko transferentziak ere ez dauden aurreikusita.

Tratamendu honen xede diren datu pertsonalak gorde egingo dira jaso ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik erator litezkeen balizko erantzukizunak erabakitzeke eta

datuak tratatu ahal izateko behar den denboraz. Artxibo eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa izango da aplikatzekoa.

Eragindako pertsonen datuak hartu, zuzendu eta ezabatzeko eskubideak erabil ditzakete, eta baita datuak babesteko indarreko araudian jasotzen diren bestelako eskubideak ere, hala dagokionean, Donostiako Udaleko Udalinfo Zerbitzuaren aurrean (Easo kalea 41, 20006, Donostia).

Eskubideak erabiltzean behar bezala artatua izan ez bada, erreklamazio bat ipini ahalko da Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aurrean. Helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3. solairua (01008, Gasteiz). Haatik, aldeztu aurretik eta hautaz, Donostiako Datuak Babesteko ordezkariarekin harremanetan jartzeko aukera izango da: dbo@donostia.eus.

15. ARTIKULUA. AZKEN XEDAPENA.

Indarrean sartzea eta onartzea.

Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bidez iragarriko dira eta bertan argitaratu eta hurrengo egunean sartuko dira indarrean.

Interesdunek eskaera aurkezteak bertako Oinarriak osorik onartzea dakar.

Erantzukizunetik salbuestea.

Pertsona onuraduna izango da laguntzen den jarduera egitearen ondorioz, edo aurretik edo ondorengo esku-hartzeen ondorioz sortzen diren kalte pertsonal edota material guztien gaineko erantzule bakarra, Donostia Sustapena kontzeptu horien ondoriozko edozein erantzukizunetik salbuetsita geratuz.

16. ARTIKULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA

Ematen diren laguntzak Oinarri hauetan jasotzen diren arauak jarraikiz arautuko dira eta, horien ordeztu, Diru Laguntzen Lege Orokorrean jasotzen diren arauak eta hura garatzeko Erregelamenduak jarraikiz, Diru Laguntzen Lege Orokorren Erregelamendua (aurrerantzean DLLOE) onartzeko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuz onartua. Haatik, Diru Laguntzen Lege Orokor horretarako edukia kudeatzeko printzipioak eta 20. artikuluan aipatzen diren informazioak buruzkoak dagokienez eskusiboki, hori guztiori bertako 3.2. artikuluko bigarren lekuordearekin bat etorriz, aplikazio hori zehazten duena.

Bestelakoan, DLLO eta DLLOE horiek soilik aplikagarri izango dira oinarri hauetan legeztatu horien gaineko aipu berariazkoak egiten direnean.

Donostian, sinaduraren egunez.

Iñigo Olaizola

Donostia Sustapeneko Zuzendari Gerentea